



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko martxoaren 3a

18. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

- Foru Legea, Nafarroako 2004ko kontu orokorreari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Legea, Nafarroako kultur ondareari buruzkoa. Akats zuzenketa (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasuna duten pertsonen lanpostu publikoak eskuratzeko modua eta betetzea arautu ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazpen eta iritzi askatasunaren alde egiten du, oinarritzko eskubidea izateagatik. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen onuradunen artean bere konturako langileak ere sar ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da politika aktiboa gauza dezan Nafarroako Erriberan. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Nafarroako liburuaren mahaia” sor dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Berako preso Jose Anjel Alzugurenen heriotza salatzen du. Erretiratutako mozioa (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, aukeren berdintasunaren arloko maila ertaineko teknikari lanpostu bat betetzeko deialdiaren legezotasunari buruzkoa. Erretiratutako galdera (7. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako 2004ko kontu orokorrei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2006ko otsailaren 23an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako 2004ko kontu orokorrei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Legea, Nafarroako 2004ko kontu orokorrei buruzkoa

Nafarroako foru eraentza birrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrek prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezzen. Hori guztia, foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 110. artikuluan Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako kontu orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakotan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru legearen proiektuaren bidez, 8/1988 Foru Legearen 115. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2004ko ekitaldiko kontu orokorrei buruz adierazitako tramiteak, Comptos Ganberak emana du behar den irizpena eta tramitatua dago Nafarroako 2004ko kontu orokorrei buruzko Foru Legearen proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 154. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onetsi egin dira Nafarroako 2004ko kontu orokorrak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari

buruzko 8/1988 Foru Legearen 113., 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Haien edukia ondoko agirietan bildu da:

I. LIBURUKIA. Hemen bilduta daude Nafarroako Parlamentuaren kontuak, Comptos Ganberarenak, Arartekoarenak, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarenak eta bere erakunde autonomoenak, sozietate publikoenak, eta Nafarroako 2004ko aurrekontu orokorren betetzearen analisia. Liburuki honetan, besteak beste, agiri hauek jaso dira:

- Gastu eta dirusarreraren aurrekontuen likidazioko egoera-orriak.
- Egoeraren balantze orokorra.
- Emaizten kontua.
- Funtsen jatorriaren eta aplikazioaren egoera-orria.
- Diruzaintzako kontu orokorra.
- Zorpetzearen kontu orokorra.
- Ondasun, eskubide eta betebeharren inbentarioa.
- Aurreko ekitaldietatik kobratu beharreko eskubideen eta ordaindu beharreko betebeharren bilakaera eta egoera erakusten dituen egoera-orria.
- Ekitaldian, erabilera orokorrari lotutako jabari publikoko ondasunetan egindako inbertsioak erakusten dituen egoera-orria.
- Datozen ekitaldien kargura hartutako konpromisoen egoera-orria.

II. eta III. LIBURUKIAK. Nafarroako Parlamentuaren, Comptos Ganberaren, Arartekoaren eta sozietate publikoen kontuen garapena.

IV. LIBURUKIA. Nafarroako aurrekontu orokorren likidazioa eta finantzen egoera-orriak zehazten dituzten xehetasun-agiriak, 2004ko ekitaldieren itxierakoak.

Foru Legea, Nafarroako kultur ondareari buruzkoa.

AKATS ZUZENKETA

Nafarroako kultur ondareari buruzko Foru Legean akatsa atzeman denez –2005eko azaroaren 23ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–, ondoko zuzenketa egin da aipatu foru legean:

13. artikuluko 2. idatz-zatian, gaztelaniazko testuan betiere, honakoa dioen tokian: “.. serán de

especial protección y a tal efecto deberán ser objeto de inscripción..”

Honela behar du:

“.. serán objeto de especial protección y a tal efecto deberán ser inscritos..”

Iruñean, 2006ko martxoaren 1ean

Lehendakaria, Rafael Gurrea Induráin

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasuna duten pertsonen lanpostu publikoak eskuratzeko modua eta betetzea arautu ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2006ko otsailaren 23an egin-dako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasuna duten pertsonen lanpostu publikoak eskuratzeko modua eta betetzea arautu ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasuna duten pertsonen lanpostu publikoak eskuratzeko modua eta betetzea arautu ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondokoak egin ditzan:

1. Ezgaitasuna duten pertsonen enplegu publiko sartzeko eta lanpostuak betetzea arau dezan; izan ere, pertsona horiek egiaz gizarteratzeko beharrezkoa da lan merkatuan erabat integratzea.

2. Nafarroako herri eta hirietako oztopo arkitektoniko eta birtualak pixkana kentzea susta eta bultzatzea dezan, guztientzako irisgarritasuna lortzeko xedearekin.

3. Ezgaitasuna duten pertsonen bazterkeriaren aurka irmotasunez borroka egin dezan eta ezgaitasuna duten pertsonen berdintasunaren arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko foru lege proiektua presta dezan.

4. Eta betiere elkarrekin kontuan har ditzan, Nafarroan ezgaitasuna duten pertsonekin lan egiten duten elkarrekin bidez.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazpen eta iritzi askatasunaren alde egiten du, oinarrizko eskubidea izateagatik.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2006ko otsailaren 23an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Parlamentuak adierazpen eta iritzi askatasunaren alde egiten du, oinarrizko eskubidea izateagatik".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazpen eta iritzi askatasunaren alde egiten du, oinarrizko eskubidea izateagatik

Legebiltzar honek adierazpen- eta informazio-askatasuna defendatzen ditu, oinarrizko eskubideak baitira, gainerako giza eskubide guztien errespetua ere defendatzen duen legez.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen onuradunen artean bere konturako langileak ere sar ditzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen onuradunen artean bere konturako langileak ere sar ditzan".

Legebiltzarrak 2006ko otsailaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2005eko azaroaren 19ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da politika aktiboa gauza dezan Nafarroako Erriberan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da politika aktiboa gauza dezan Nafarroako Erriberan".

Legebiltzarrak 2006ko otsailaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2005eko abenduaren 5eko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Nafarroako liburuaren mahaia” sor dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Nafarroako Gobernua premiatzen da “Nafarroako liburuaren mahaia” sor dezan”

Legebiltzarrak 2006ko otsailaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2006ko otsailaren 20ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Berako preso Jose Anjel Alzugurenen heriotza salatzen du.

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2006ko otsailaren 23an egindako bileran, Aralar parlamentu taldeak aurkezturiko mozioa, Nafarroako Parlamentuak Berako preso Jose Anjel Alzugurenen heriotza salatzeko, erretiratu izanaren jakitun dagoela adierazi zuen. Galdera hori 2005eko aza-

roaren 21eko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, aukeren berdintasunaren arloko maila ertaineko teknikari lanpostu bat betetzeko deialdiaren legezkotasunari buruzkoa.


ERRETIRATUTAKO GALDERA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2006ko otsailaren 23an egindako bileran, foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak aukeren berdintasunaren arloko maila ertaineko teknikari lanpostu bat betetzeko deialdiaren legezkotasunari buruz aurkezturiko galdera erretiratu izanaren jakitun

dagoela adierazi zuen. Galdera hori 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	